


Astekaria

# BARREN elgoi

## Elgoibar: Makina Erremintaren hiriburua



### LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

## 3 LAU HANKATAN

"Denboraldi batez lotan zirudien arrazakeriaren mamua iratzarri berri zaigu" **Alberto Ansuategi**

## 6 ERREPORTAIA: HAIZE BERRIAK ERRAMINTA MAKINA SEKTOREAN

Makina erremintaren sektorearen fusioak une larriak bizi ditu. Egoeraren berri jakin nahian enpresetara jo dugu.

## 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: NOLA IKUSTEN DUZU ELGOIBARKO INDUSTRI EGOERA?

**Jesus Bilbao:** "Makina erremintaren zuzpertzeta beste industria zuzpertzten denean gertatzen da".

**Iñaki Bengoetxea:** "Asmo honen ondorioz gogorrena langile-riaren gehiengoari ematen zaion tratamendua izaten da".

## 12 BERBETAN: Aitor Zabaleta

KAZETARI BAT AFRIKA ALDEAN ERREPORTARI

## 14 KIROLA

GAIA: F. IZETA ETA G. MILOS-EN ARTETIK ATERAKO DA GARAILEA

ELKARRIZKETA: **Mikel Fidalgo**

## 16 ELKARTEETATIK BUELTAN

LURKI: BUZTINA TORNOA ETA ESQUAREKIN LANDUZ

## 17 KULTURA

ELCHEKO KOMIKIGILE BAT KOMIKI LEHIAKETAREN IRABAZLE

### FARMAZIAK:

- 4, larunbata: **BIDASOLO**
- 5, igandea: **BIDASOLO**
- 6, astelehena: **ORMAZABAL**
- 7, asteartea: **ORMAZABAL**
- 8, asteazkena: **ORMAZABAL**
- 9, osteguna: **ORMAZABAL**
- 10, ostirala: **YUDEGO**

### OKINDEGIAK:

- 5, igandea: **BOUTIQUE DEL PAN**
- 6, astelehena: **ZABALETA**
- 8, asteazkena: **EIZAGIRRE**



## PREMIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....	741155
Txanda hartzeko .....	743354
Alkoholiko Anonimoak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia) .....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitala .....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua	7410 08
Odol Emaileen elkarte .....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua ..	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua .....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) ..	743088
Liburutegia .....	743525
Musika Eskola .....	742145
Polikiroldegia .....	741361
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### IKASTETXEA

Herri eskola .....	74 08 79
I.M.H. ....	74 41 32
Institutua .....	74 02 67
Ikastola .....	74 27 00
L.H.I. ....	74 31 00
Pilar Ikastetxea .....	74 13 31

TXANDAK

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

**Argitaratzailea**

Elgoibarko Izarra

**Laguntzailea**

Elgoibarko Udala

**Zuzendaria**

Alberto Agirreazaldegi

**Hizkuntza Arduraduna**

Anjel Ugarteburu

**Erredakzio kontseilua**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria**

Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea**

Maite Rementeria

**Publizitatea**

Nekane Etxaniz

**Administrazioa**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

**Kolaboratzaileak**

Myriam Aldazabal, Alberto

Ansuategi, Isabel Ansola,

Joxin Arregi, Belen

Arrizabalaga, Bertso Eskola,

Hasier Etxeberria, Ina

Garagarza, Maite Iriondo,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Koldo Lizarralde, Aitor

Lodoso, German

Meabebasterretxea, Jasone

Osoro, Diana Perez de

Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor

Zabaleta

**Banaketa arduradunak**

Imanol Larrañaga

Inaxio Garmendia

**Inprimategia**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere

gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta

iritzien erantzunkizunik.

**L**AU HANKATAN



**Alberto Ansuategi**

## Aberria eta arraza

**D**enboraldi batez lotan zirudien arrazakeriaren mamua iratzarri berri zaigu eta, bere itzala Europa osoan zehar zabaltzen ari denaren kezka dela eta, tentsio ugari ageri da geure inguruan.

Adibide gisa, Eskozia aldean "SCOTWATCH" izeneko talde batek buruturiko zenbait ekintza direla eta sortu den polemika. Berrehun kidetara heltzen ez den talde honek Eskozia barnean ingelesaren aurkako jokabide nabaria agertzen du. Talde honen azken "ekintzetariko" bat jende askorentzat iraingarriak liratekeen pegatina batzuen inprimaketa litzateke. Delako pegatinekin zera diote: **ESKOZIA TXUKUN MANTEN DEZAGUN. JAURTI ZURE ZABORRA INGALATERRARA.**

Beharbada batzuentzat irain bat dena beste batzuentzat slogan barregarri bat besterik ez da, baina ezin izkutatu daitekeena zera da, pegatina horiek giza talde batekin beste batenganako duen mespretxua (edo gorrotoa, agian) adierazten dutela.

Halere, askorentzat guzti hau abertzaletasun eta arrazakeriaren arteko harremanaren konfirmaketa litzateke. Et horretan ezin naiz ados egon. Zenbaitzuek interes ezberdinak asetzeko abertzaletasunaren erabilpen desegokia egin badezakete ere, horrek

ez luke zertan abertzaletasun beraren deskalifikapena suposatu behar.


Abertzaletasunak "etiketa" asko jaso izan ditu. Hauteskundeetan progresista eta abertzalea batera izatea ezinezkoa zela pentsatu eragin izan nahi ziguten. Orain abertzalea arrazista dela sinistarazi nahi digute.

Baina arazoa ez da abertzaleak arrazistak direla, ez eta gutxiago ere. Norberak bere identitate politiko eta kulturala defenda dezake, besteenarekiko begirunea izanez aldi berean. Gakoa beste zerbaitetan dago: arrazakeria askotan abertzaletasunaren oinarritan justifikatu izan dela. Ze, honelako jendeak nola edo halako justifikapen bat bilatu beharra baitu.

Londreseko unibertsitateko komunitako hormetan "elkarrizketa" interesgarri bati idatzirik aurkitu nuen behin. Ikasle pakistaniar batek bere aberkideek unibertsitatean jasotako tratua zela eta zera idazten zuen: "Zergatik dira nazio garatueta zenbait pertsona horren harroak?" Eta ikasle ingeles batek honakoa erantzuten zion: "Arazoa klase borroka da. Gatazka nazio azpigaratueta aberatsen seme eta Britaniako langilegoaren semeen artekoa da". Batzutan edozer gauza justifikatzeko gai izan gaitzkeela pentsatu nuen.

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## AZKARRA, ARGIA, MALGUA.

Ez gaitzen engaina, *Dino*. Zu ez zaude XX. mendean bizitzeko egina\*. Gure mundu honek erantzun bizkorrak, lehiakorrak eta moldaerazak eskatzen ditu. Horregatik sortu ziren herri komunikabideak, haundi-maundiak astunak, motelak eta garestiak direlako. Eta inoiz ez direlako gure herrietan gertatzen denaz gehiegi arduratu.

*Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak* egin ditugu Arrasaten. Pozik gaude. Bost urtetan herrietako aldizkariak, irratiak eta telebistak ugaltu eta finkatu direlako. Eta benetan merezi izan duelako. Horregatik, ARRASATE KOMUNIKABIDEAK elkartearen izenean eskerrik beroenak babesa, laguntza eta partehartzea eskaini duten guztiei.

***Eskerrik asko zuei!***

\* Jakin ezazu, halere, azken aldi honetan museoetan baino zinean askoz ere maitagarriagoa agertzen zarela.



AZKUE

**A**ste honetako erretratua ere **Begoña Mugerzak** laga digu. Aurreko aste-koa potoloena bazen, aste honetan mehei tokatu zaie txanda. Esan genizuen potolo eta mehen arteko futbol partidua C.D. Elgoibar-en diru-kutxa itxuratzeko antolatu zutela. Begoñak jakin izan duenez, mila duroko defizita omen zuen futbol taldeak. Gainera, partiduan ateratako dirutza defizita baino bastante handiagoa izan omen zen. Handik gutxira, Gipuzkoako Futbol Federakundeak "Lehendakari Eredugarri"

izendatu omen zuen **Alberto Ezenarro** "Kakume".

Ikus dezagun potoloen kontrako lehiari ausartu ziren meheak zeintzuk izan ziren:

Tente, ezkerretik eskumara: **Luzio Ondarza, Juan Cela, Txomin Jauregi, Dimas Gil** eta **Jose Zuazubizkar**.

Makurtuta: **Felipe Igartua, Luis "txorrito de arena", Inazio Badiola "Moka", Jose M. Monje, Alberto Ondarre** eta **Felix Zubizarreta**.

Ez ahaztu datorren astean partidu xeblere honetako epaileak aurkeztuko dizkizuegula.



**IRUDIA - SOINUA**  
**ELEKTRAGAILUAK**

**ARTEGI**

**Gabonetako eskaintza bereziak**

San Frantzisko 40.
Tel.: 74 06 87
ELGOIBAR

**Logopedia**  
**Zentroa**



**Isabel Gil Arrocha**

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

**Bidebarrieta, 27-B**  
**Tel. 11 84 71 EIBAR**

# Haize berriak Makina

**Jakina da komunikabideei esker, makina erramintaren sektorea sei talde handitan berrantolatzekotan dabilela. Estatuko produkzio ahalmenaren %75a Euskal Herrian kokatzen da. Hauetatik 24 enpresa, orokorrean sektorearen %60a lirartekeenak, taldeetan batzea bideragarria denetz aztertzen ari dira.**



↳ Makina erremintaren sektorea fusioak gauzatu zain dago.

**Sei** talde handi hauek osatzen dituzten enpresek akordio maila ezberdina dute beraien artean. Batzuek "fusio patrimoniala" deitzen dena dute helburutzat, beste batzuek arlo komertzialean elkarrekin egingo dute lan, eta beste batzuek salmenta ondorengo asistentzian bat egingo dute. Sei talde hauen eraketa, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak bultzatutako makina erremintaren "cluster"aren lehen fruitua baino ez da.

Proiektu bakoitzari dagokion laguntza eman aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere onspena eman beharko du. Berrantolaketaren kostuaren zenba-

tekoa ezagutzen ez bada ere, laguntza publikoak ez du "3R plan"ean ezarritakoa gaitutuko, hau da, 3 milioi pezeta galdutako lanpostu bakoitzagatik. Guztira 500 lanpostu inguru galduko omen dira berrantolaketaren

ondorioz.

## Sei talde handi

Esan bezala, sei talde-taz hitz egin da baina enpresa multzo batek talde bezala funtziona dezan zenbait baldintza bete behar dira: enpresa guztien artetik, batek

agindu behar du eta besteek haren aginduak onartu behar dituzte. Estrategia bakarra egon beharko da salmentetan, finantzaketan,... Talde bezala estrategia bat eduki behar da.

Bestetik, irabaziak

## MAKINA ERRAMINTA SEKTOREAREN BERRANTOLAKETA

### 1. TALDEA

Danobat Koop. E., Soralue Koop. E., Lealde Koop. E.

### 2. TALDEA

Goiti, Ona-Pres, Fagor-Arrasate

### 3. TALDEA

Geminis, Ladislao Aranburu, Lagun, Maher holding, Etxe-tar

### 4. TALDEA

Lan Bi, Agirregomezkorta Hnos, Bek, Kelmi, Precisystem

### 5. TALDEA

Loire, Gamei, Lineas Automaticas

### 6. TALDEA

Anayak, CME


# Erremintaren sektorean

zein galerak egon, emaitzak taldearenak izango dira. Taldea horrela uler-tuta, lehen talde edo grupoa "Grupo Danobat"ek osatzen du. Bertan Danobat, Soraluze eta Lealde daude. Bigarren taldea, gainontzeko kooperati-bek osatzen dute: Arrasate, Goiti eta Ona-Pres. Hirugarren taldea, nahiko aurreratua dagoena, Lagun, Geminis, Etxe-Tar, Ladislao Aranburu eta Maher Holding-en inguruko enpresek osatuko luketena da. Hirugarren talde honek aurre-akordioak egin ditu eta beste akordio batzuk falta zaizkio oraindik. Epe laburrera eratuko den taldea da hau.

Beste hiru taldeak, Precisystem, LanBi, Agirregomezkorta Hnos., Kelmi eta Bek enpresez osatutakoa, Loire, Gamey eta Lineas Automaticas-ek osatutakoa eta Anayak eta CME-k osatutakoa, momentu honetan asmo hutsa direla esan daiteke.

## Hannover-eko feria

Adituen ustez, aurten Hannover-en izan den makina erremintaren 10. ferian argi ikusi da sektorea krisian dagoela. Aurten Estatu osotik 51 enpresak parte hartu dute,



\* 1992ko urtekari estatistikoko datuak

hiru laurdenak Elkarte Autonomokoak zirelarik. Dena den, atzerakada nabarmena da duela bi urte Pariseko feriarekin konparatuz. Makina erremintaren eskaria hobetuko den itxaropen handirik ez dago epe laburrera begira. Egoera hau kezka-garria da benetan fabrikatzaileentzat. Hori dela eta, litekeena da soluzio-bide estrukturalak bilatzen jarraitzea europarrek

batez ere, Japoniako eskaintza tradizionalaren aurrean eta hasi berria den ekialdeko Europa eta Asiako eskaintzaren aurrean, lehiatu dezaten.

## Etorkizunera begira

1993. urtea, galdutzat jo daiteke adituen iritziz. Datorren urteko lehen hilabeteak ere, ez dira onak izango eta urtearen bigarren zatian, inbertsio-ak eginez ekonomia haz-

ten joango den itxaropena izan behar da. Enpresa asko oso makal daude eta tamalez askok itxi egin beharko dute. Sektorean enpresa gutxixeago geldituko dira; asko makaldu-ta, baina ekonomia hazten denean sektoreak aurrera egingo duen zalantzarik ez dago.

Iturria: Karmelo Urdangarin "Por fin avanza las agrupaciones de empresas del sector" - EMPRESA XXI-. "La crisis y la Maquina Herramienta" -DV.

ENPRESAK	LANGILEAK
■ Hns. Agirregomezkorta .....	46
■ Acoín .....	20
■ Anayak .....	85
■ Arocena .....	63
■ Arriola .....	26
■ CME .....	71
■ Danobat .....	426
■ Doimak .....	43
■ Estarta Ecenarro .....	105
■ Etxe-Tar .....	110
■ Gaindu .....	20
■ Geminis .....	117
■ Goiti .....	64
■ Izpe .....	32
■ Kondia .....	90
■ Lagun .....	147
■ LanBi .....	25
■ Acme .....	52
■ Mupem .....	86
■ MYL .....	13
■ <b>GUZTIRA .....</b>	<b>1641</b>

\*Datuak 1992koak dira, gaurdaino langile kopurua %10-15 gutxitu da.

Iturria: Karmelo Urdangarin

**E**rreportaia hau egiterako orduan, batzear dauden enpresetara jo dugu beraien iritzien bila. Hemen agertzen direnak, idazteko prest agertu dira. Beste askok, berriz, ezetza eman digute fusioen etorkizuna bera ere zalantzan dagoelako. Taldeen eraketak, beraz, une larriak bizi ditu. Gure asmoa ahalik eta iritzi gehien jasotzea izan bada ere, makina erremintaren sektorearen egoerak ez digu aukera hori eman.

## Alberto Ortueta: AFMko zuzendari orokorra



**Zeintzuk dira sektorearen berrantolaketa eragin duten faktoreak?**

- Krisialdi honek eta bera ekarri duten zergatiek ere mundu guztia astintzen du eta preparatuta egon behar da hau bukatu eta berrindartzea datorrenerako, nahiz eta gauzak ez diren lehen bezala izango, merkatu internazionalak agintzen duen konpetitibotasun oinarriek aldaketa haundiak izaten bait dituzte. Munduko makina erremintaren eskaera %35 jeitsi da, produkzio edo ekoizpen ahalmenak moztu egiten dira eta enpresa neurriak indartu egiten dira konpetitibitatea hobetzeko. Era berean teknologia berrikuntzak, formazioa, fabrikazio programak, kali-

## Zergatik sortu dira taldeak?

### DANOBAT

1. TALDEA



“1983an DEBAKO taldea osatu genuen. 1993. urtean sortu berri den DANOBAT taldeak, DEBAKO ordezkatu eta bere baitan lau enpresa bildu ditu: Danobat Koop.E., Lealde Koop.E., Soraluze Koop.E. eta Danobat-Soraluze A.I.E.

Abantailak oso garrantzitsuak izan daitezke bi baldintza betetzen badira: norabide bakarra eta harreman ekonomiko sendoa. Dimentsionamendu handiak arlo guztietan sinergia garrantzitsuak lortzeko aukera ematen du: arlo komertzialean, tekniko-produktiboan, horniduran, finantzetan eta giza baliabideetan. Guzti honek konpetitiboagoa izaten laguntzen du. Arlo komertzialean esaterako, posible da taldean egonez gero atzerrian ordezkariak propioak ezartzea; bakarrik egonda, kasik ezinezkoa da. Hornidura mailan, abantailak asko dira.

Desabantailak dagokienez, enpresak batzean, behe mailako zein goi mailako lanpostuak desagertzen dira. Enpresa mailan, flexibilitatea gal daiteke. Dena den, zuzendaritzaren estiloaren eta antolakuntza motaren menpe egoten da hori”.

Anton Etxeberria (Danobat Taldeko Zuzendari Orokorra)

### LANBI

4. TALDEA



“Egungo merkatuaren erronkari behar bezala erantzuteko hartu dugu erabaki hau, zeren azken batean merkatuari egokitu behar gatzazkio derrigorrez; ez bakarrik gure produktuekin, baita gure azpiegitura eta antolamenduarekin ere. Bakarka

ahulak gara gure konpetentziari behar bezala aurre egiteko.

Abantailarik nagusia merkatuari erantzun egokia emateko gai garela adieraztea da lehenik. Eta bigarren, eskuartean egunoro darabilzkigun bitartekoei etekin hobea ateratzeko aukera. Kostuak bikoiztu egiten zaizkigu zenbait kasutan bakarka gabiltzalako.

Desabantailak egon badaude. Baina gaur-gaurkoz merkatuan konpetitiboa izan nahi duen enpresak kalitatea sendotu, zerbitzu egokia eskaini eta kostuak murriztu behar ditu, nahi eta nahi ez. Horretarako elkartu, edo eta ...kitto.”

Tomas Barandiaran (Gerentea)



tatearen gestioa eta bestelako enpresa arteko ekintzak.

**- Taldeetan sartzea erabaki duten enpresek Eusko Jaurlaritzatik diru laguntzarik jasoko al dute?**

- Sektoreak aldaketak eta berrantolaketak aurrera eramaten ditu, punta puntako konpetentziako merkatu batetan moldatzeko erabilgarria dela konturatu direlako bai enpresek eta baita hauek batzen dituen Elkarteak ere, AFM hain zuzen. Publikoak edo instituzioetatik datozen laguntzak ez dira pribilejio edo faborezko tratuak, enpresek zerikusirik ez duten gabezia eta tinkotasun baturengatik sortu den konpetitibitate galera bati aurre egiteko medio batzuk baizik: kostoen inflazioa (fiskalak, sozial kotizazioak,...), Europako dirurik garestiena eragiten duen kreditu eta diru politika bat, banakako kostu eta lansarien haunditzearen eta

produktibitatearen arteko desfase handia, eta baita Europako Batasuneko beste herrialdeetako flexibilitatearekin alderatuz gero lan normatiba eta lan merkatuen funtzionamenduen desegokitasuna ere. Etor daitezkeen laguntzak ez dira beste herri batzuetan ematen direnen desberdinak.

**- Sektorea jasaten ari den krisialdiari aurre egiteko berrantolaketa al da bide bakarra?**

- Kuestioa ez da sektorearen berrantolaketaekin ezberdinak diren irtenbideak edo alternatibak edukitzea. Egunez egun zabalagoak diren merkatu batzuk inposatzen dute hau dena, eta Europako Merkatu Bakarra 93. urteko haseratik gauzatu da, nahiz eta hau makina erremintarentzat aspaldidanik zen exportazioen %60a merkatu horretara bait doa.

**- Ondorioz Elgoibarrek 500 lanpostu galduko ditu. Gehitu egingo**

**al da kopuru hau?**

- Lan exzedente posible bezala 500 langileren kopurua kontextu desegokian erabilia izan da, 24 enpresen tamainu haundiagoko Taldeak sortzeko berrantolaketa bezala. Sektoreak gaur egun 110 enpresa ditu 6000 lanpostuarekin. Konpetitibitate eta efizientzia hobetzeak lanpostuak sendotu eta gehitzeko oinarriak jartzea ekartzen du eta ez lanpostuak ezabatzea. Sektore honen lanpostuen soberakinak, makinaren mundu guzti-ko eskaeren beharpena eta ekipo ondasunetan egiteko diren inbertsioen gainbeherak ekarri ditu. Hau azken hiru urteotan areagotu egin da eta Espainiako merkatua azken zortzi urtetako punturik bajeunean dago. Berkolokatze eta profesionalen birziklaketa bidez saiatu beharko dugu lanpostuen exzedente honi aurre egiten.

# Nola eragin du taldeen eraketak industria auxiliarran?

**ETXEPE**

“Ez dakit zein funtzionamendu izango duten taldeek, baina gauza bat argi dago: enpresa auxiliarrak egiten zutena, orain etxean egiteko asmoaz badabilta, dudarik gabe gure kalterako izango dela.

Gaur egun, guk ezagutzen dugunaren arabera eta taldeetan dauden gure bezeroei dagokienean, industria auxiliarrarekiko jokaera erabat aldatu da.

Badaude, langile kopurua murriztu eta tailerretik makinak kendu dituen enpresa taldea, bere produktuen muntaira soilik dedikatuz. Talde mota honek, lana duenean, beraien piezen mekanizatu egiteko tailer auxiliarrak beharra izaten du. Beste talde mota bat, makinaria ona edukiz gero, gauza guztiak bere tailerretan egiten saiatzen da. Dena den, talde honek auxiliarrak beharra izaten du pieza berezien mekanizaturako edota saldutako makinak entregatzeko epea motza edo penalizazioa duenean. Kasu hauetan enpresa auxiliarrangana jotzen du. Hala ere, enpresen batuketan helburua, mundu mailako merkatuan konpetitiboak izatera heltzea bada, guztion onerako izango dela uste dut”.

**Karmelo Bilbao** (Gerentea)

**ALACEROS**

“Lehenik eta behin esan, gaur egun jasaten ari garen krisiak industria auxiliarraren eskariaren gutxitzea eragin duela. Taldeak krisiaren eraginez sortu dira eta berau gainditzea dute helburu. Honi buruz esan, gobernu erakundeek zein finantza erakundeek enpresa txikiari lagundu beharrean, trabak jartzen dizkiotela, krisiaz aprobeztatzen direlarik. Ez dugu ahaztu behar, taldeen eraketak lanpostuen gutxitzea ekarriko duela eta taldea osatzen duten enpresen indartzea.

Horregatik, industria auxiliarraren eskaria ere, indartu egingo dela uste dut. Hori bai, baliteke, enpresa horietako langile soberakinak bere enpresa auxiliar propioa sortzea eta ondorioz, gaur egun dauden enpresen konpetitzaile bihurtzea. Horregatik, taldeek krisia gainditzeko ez duten arte, enpresa auxiliarrak salmenta prezioa merketu beharko du”.

**A. Iriondo.** (Salmenta ordezkaria)

# Nola ikusten duzu Elgoibarko industriaren etorkizuna?

**Galdera honi hain labur erantzutea ez da batere erraza. Hala ere, gure herriarentzat hain garrantzitsua den une historiko honetan BARREneko eskariari erantzun nahi izan diot, hitz gutxitan bada ere, nire iritziak polemika sortzeko eta, agian, erabakiak hartzeko balio ahal izango duelakoan.**



**G**ure industriaren izate edo ez izatea, batez ere, makina erremintan oinarritzen da eta hau gaintzeko produktuak ematek bizi den aktibitatea da. Beraz, makina erremintaren zuzpertzeta beste industria zuzpertzeten denean gertatzen da. Nik neuk, industriaren zuzpertzeta ez dut epe motz ez ertainean ikusten, eta beraz, erreminta makinak denbora gehiago beharko du. Gutxienez, beste bi urte oso gogorak izango dira.

Bestalde, badira beste faktore batzuk -teknologi eboluzioa, management sistemen eboluzioa, etb. - makinan erabilerari buruzko kontzeptuak aldatu dituztenak. Honek oraindik gehiago atzeratzen ditu makina erremintaren inbertsio garbiak eta gainera, eraldatu egiten ditu kontzeptuak.

Konturatu gabe, betebetan "aldea global" deiturikoan aurkitzen gara eta lortutako bizi-mailei buruzko gure ideiak ilusio hutsak besterik ez dira. Konpetentziaren aurrean gure erreakzio-ahalmena ezabatze eta zentzugabeko erresistentziak sortzeko besterik ez dute balio, ondorioz, zorrak janda aurkituz, dena lortzea nahi izategatik.

Beraz, gaurko -aldaketen abiadura kontutan izanda

etorkizuneko ere bada-beharren soluzioak ematen digu erantzuna. Egin ditzagun azkar aldaketak, errealitate egokitu eta lehiakideei aurrea hartuz. Orduan superbizipenaren tunel-aterpean egongo gara, eta ez badugu egiten, gure industriatik oso gutxi geldituko da.

Denon artean daukagu erantzuna. Nik baikorra izan nahi dut eta "nahi izatea ahal izatea da" esaera nahiko sinisten dut eta mundu guztiak horretan sinistea espero dut. Bakoitzak bere zentzuak erne izan ditzala, aholkulariak ondo aukera ditzala, baina batez ere, zentzuduna izan dadila.

Egoera historiko honetan guztiaren gaintetik enpresak salbatu behar dira eta enpresa osatzen duten kolektiboak, hau da, jabeak, enplegatulangleak eta hornitzaile-bezeroak, ahaleginean partaidetza berdina eskainiz eta beraien iraupenean saiatu behar direlarik. Talde hauetako edozeinen aurkako neurri gogorak ez dute arazoa konponduko, larriagotu baizik.

Enpresa guztiak salbatu behar ditugu, baina batez ere beste guztien oinarria direnak. Elgoibarren gure industria hiltzen bazaigu honetarako lanean diharduten enpresak berehala hilko dira.

**Jesus Bilbao**



**Munduak azken aldia eman duen atzerakada ekonomikoak betebetan jo du Elgoibarren garrantzi gehien izan duen makina erremintaren sektorea. Nahiz eta enpresa batzuk alde egin duten eta beste batzuk krisialdi larrian egon arren, oraindik ogibide izaten jarraitzen du langile askorentzat.**

**E**torkizunari begira, orain dela urte batzuk martxan jarri zen IMH eskola, gazteria hezi eta prestatzeko, gero-rako oinarritzko zutabe bezala. Belaunaldi berriak lanean hasi baino lehen etxerako bidea hartu beharrean aurkitzen dira krisialdia dela eta.

Oraingo honetan krisiak azpiegiturari gogor jo diola oharturik, Eusko Jaurlaritza bitartekari delarik, taldeka batzeko asmotan bildu dira enpresak tamainaren arabera, krisia gaintitu eta etorkizunari aurre egiteko. Nahiz eta enpresa batzuk ez egon ados Elgoibar inguruan, bi talde garrantzitsu sortu dira. Bata kooperatiba batzuk batzen dituen eta, bestea, sei bat elkarte anonimok osatzen dutena. Asmo honekin orohar ados egon arren, badaude hainbat xehetasun langilei enpresari aurre jarriko gaituena, nahiz eta hau ez izan onuragarri denontzat.

Asmo honen ondorioz gogorrena langileria gehiengoari ematen zaion tratamendua izaten da, sakrifizio oso handia eskatzen zaiolako eta ezin ditugulako babesik gabe laga

langabezian edo jubilatze-kidean jartzen ditugun kideak, Estatu mailan egiten ari diren lege aldaketak kontutan hartuz, orain arteko eskubideak murriztuak izateko arriskuan daudenean.

Langilegoa ez da izan sekula etorkizunaren aurkakoa, nahiz eta horrela agertu den batzuetan. Baina, beti gertatzen den bezala, tirabira batzuk azaltzen direnean bakoitzak bere eskubideak defendatu behar izaten ditu.

Ziur gaude gure aurrean denbora izan dutela, baina guregana presaka etorriko dira, erabakia hartzeko astirik ez dagoela esanaz. Horregatik laster erantzun beharrean izango garelakoan, hauxe esango nieke kide ditudan langileei: euren iritziak eta ikuspuntuak ager ditzatela gai hauen eztabaidan parte hartuko duten erakundeen aurrean, hau da, sindikatuen eta hauen ordezkarien aurrean, sindikatuak izan baitira langileok geure defentsarako hartu ditugun erakundeak, guretzat irtenbide onena aukeratuko dutelakoan etorkizunari begira.

**Iñaki Bengoetxea**

**E**TA ZURE USTEZ?

**Nola ikusten duzu Elgoibarko industriaren etorkizuna?**



**Aitor Irureta**  
24 urte, langabetua

Etorkizuna? Beltza. Ez dot gehixegi ulertzen eta ez dakit zer egin leiken. Gaur egun gaizki dao eta aurrerantzekua ere gaizki daorrela ematen du.



**Gloria Aranguren**  
55 urte, etxekoandrea

Momentu honetan txarra, baina hau aldatu egingo da, derrigor. Batzuk esaten dabe makina erremintan ordeztu beste zeozer. Esperantzia euki bihar.



**Flori Maeso**  
30 urte, administraria

Industriak automozioa eta makina erremintan oinarrituta jarraitzen badu, gaizki. Beste bide batzuk urratzen ez diren arte gaizki jarraituko dugu.



**Francisco Revert**  
42 urte, espezialista

Oso iluna. Oso gaizki. Hobetuko duen esperantza izan behar da. Enpresariet inbertitu egin behar dute eta lanpostuak sortu.



**Esteban Gonzalez**  
65 urte, jubilatua

Gauzak txarto daude, ez bakarrik gazteei dagokionean, nagusiek ere ez dute etorkizunik. Ez dago lanik inon; neure semeek ere lan gutxi dute.



**Elena Crespo**  
46 urte, etxekoandrea

Oso beltz. Tokiren batetik aurrera egin beharko du eta ez Elgoibarren bakarrik orokorrean ere bai. Etxean adibidez, denak daude langabezian.

**LANBROA**

elgoibar

**Kide**  
leapaindegia

**Fotero**  
OKINDEGIA  
OPILDEGIA

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

PUB

elgoibar

## Garbiketa industrialerako ikastaroa

Prestakuntza eta Lanbiderako "Sartu" erakundeak garbiketa industrialeko ikastaroa antolatu du datorren urtarrilaren 17tik otsailaren 18ra bitartean. Ikastaroak 150 orduko iraupena izango du eta egunean 6 ordu klase emango dira. Ikastaroa 18 urtetik gorakoentzat izango da. Izena emateko epea zabalik dago abenduaren 20ra arte. Informazio gehiago eskuratzeko (94) 6 20 04 49 telefonora deitu.

## Ikastolako frontoia

Ikastolak frontoia erabiltzen dutenei oharra luzatu nahi die. 1994. urteko Ikastolako frontoiaren erabilerarako txanden adjudikazioa irekita dago bai bazkide, guraso eta ikasle ohientzat. Eskaera aurkeztu nahi duten guztiek abenduaren 13a baino lehenago egin beharko dute. Eskaerak Ikastolako bulegora eraman beharko dira.

## Oreka eta malabar ikastaroa

Taupada antzerki taldeak, Udalaren laguntzaz, oreka eta malabar ikastaroa antolatu du Gabonetarako. Irakatsiko diren iharduerak hauek izango dira: joku malabarak, monozikloa, ruloak eta hankaluzeak. Izena emateko Kultur Etxera jo, goizez, abenduaren 17a bitartean. Informazio gehiagorako 74 21 58 zenbakira deitu.



**HIES**aren nazioarteko eguna ospatu zuen Errotatxok, Drogomenpeko-rasunen prebentziorako elkarteak, joan den asteartean, hilak 1. Astelehe-nean, azaroak 30, HIES eta sexualitateari buruzko hitzaldia eman zuen Amaia Vazquez sexologoak. HIESaren nazioarteko egunean, mahai informatibo bat jarri zuten King-Kong ean, eta ondoren San Frantzisko iturriaren aurrean kontzentrazioa burutu zuten.



**Autoei** insigniak kentzen ibili da norbait egunotan beste zereginik ezean. Orain Udaltzaingoan daude jabeak jasotzeko zain. Guztira 50 bat dira eta beraz, norbaiti bere autoarena falta bazaio, Udaltzaingotik pasa daiteke berea jasotzera.

**usoa**  
KAFETEGIA

Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

CAFE  
TEATRO

**Pub PELOUSE**

San Frantzisko, 43  
Tel: 74 20 40

**IDARRAGA**  
KAFETAK

Eguneroko errealdiak

San Frantzisko 17: Tel. 74 05 33-36 39


**ARMUETA**

Baserriko haragietan berezia

**Harategi Urdaitegia**

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

## BARRENeK herri komunikabideei buruzko jardunaldietan hartu du parte



**Pasatako** aste bukaeran zehar Arrasateko ARKOk (Arrasate Kominukabideak) antolatutako "Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak" burutu dira Arrasaten. Herri mailako aldizkari, irrati eta telebistak izan ziren aztergai. BARRENeke erredakzio osoa ere bertan izan zen. Geure burua jazteaz gain, hastear daudenei guk emandako pausuak erakusteko aukera izan genuen. Jar-

dunaldietako lehenengo ponentzia BARRENeke zuzendaria den Alberto Agirreazaldegik eman zuen "Herri aldizkari bat sortzeko eman beharreko urratsak" izenburupean. Aldizkari sortu berrien esperientziak aztertu zituen mahai inguruan Maite Rementeria, BARRENeke maketatzailea izan genuen hizlari "Geu Gasteiz" eta Durangoko "Eraz" aldizkariko ordezkariekin batera.

## EMAKUNDEko ohorezko aipamena BARREntzat

Ainhoa Lodoso BARRENeke kazetariak EMAKUNDE 93 sarietako bat irabazi du. Kazetaritza, kirola, artea eta politika munduko gizon-emakume ospetsuek osatutako epaimahaiak ohorezko aipamena eman dio Ainhoari BARREN astekarian kirol sailean emakumeei eskaini dien artikuluetatik. Sari banaketa Gasteizen izango da.

## Institutuko ikasleak sarituak

Batxiler Institutuko Maria Perez, Sandra Lopez, Ana Belen Garcia eta Elisabet Horcas ikasleek Arrasateko "Jose Maria Arizmendiarreta VIII. Lehiaketa"ko 17 eta 18 urte bitarkoen sailean bigarren saria irabazi dute. Enrike Larrañaga irakaslearen zuzendaritzapean "Menos beneficios eta más sacrificios" izeneko lanetatik, 125.000 pezetako saria jasoko dute. Lehiaketaren gaia langabezia eta elkartasunari buruzkoa izan da. Sari banaketa Aretxabaletako Giza-Bidea fundazioaren egoitzan izango da hilaren 16an eguerdiko 12etan.

ANDER GILLENEA

ASESORIA  
**GOAR**

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

## Zine emanaldiak gehitu egingo dira

Ongarri Zine Klubak eta Elgoibar-ko Udalak zine emanaldien ordutegia eta egunak gehitzea erabaki dute, elgoibartarren aspaldiko eskari bati erantzunez. Hemendik aurrera zine emanaldiak honela izango dira:

- Ostiralean, 10,15etan.
- Larunbatean, 10,15etan.
- Igandean, 5,00etan haurren emanaldia eta 7,30etan eta 10,15etan nagusia.
- Astelehenean, 10,15etan.

Astebukaera honetan, zine emanaldiak ezberdinak izango dira jaitartea baitago. Ostiral, larunbat eta igandean, hilak 3, 4, eta 5, lehenago esan bezalaxe izango dira emanaldiak. Astelehen eta asteazkenean, hilak 6 eta 8, jaiegunetako ordutegia izango du zineak eta asteartean, hilak 7, iluntzeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan izango dira emanaldiak. Ostiral, larunbat eta igandean Sharon Stone protagonista den "Acosada" pelikula emango dute eta astelehen, astearte eta asteazkenean "Un dia de furia". Hemendik aurrera proiektatuko diren filmeak ez dira orain arte emandakoen ildo berekoak izango. Datozen astebukaeretan, "Fugitivo", "La linea de fuego" eta antzerako filmak ikusiko ditugu.

## 250 milioko mailegua eskatzea onartu du Udal plenoak



**Pasa** den asteartean, hilak 30, bost puntutako gai zerrenda onartu zuen udal plenoak. Punturik eztabaidatuena 250 milioiko mailegu eskaera eta aurrekontuaren barruko maileguen modifikazio espedientearen izan ziren. Espedientearen agertzen diren Mintxetako gastuak eta Leku-Eder-eko plaza erakitzekeko gastuak ordaintzeko mailegua eskatu behar zela adierazi zuen Jose Inazio Elkoro-Iribe alkateak. Izan ere, azken urteotan obra asko egin beharrean aurkitu da Udala

eta orain Mintxetako eta Leku-Eder-eko gastuei aurre egiteko mailegua eskatu beharrean aurkitu dira. PNV, PSOE eta EA alderdien baietzarekin eta HBren kontrako botuekin Gipuzkoako Kutxari 250 milioiko kreditua eskatzea onartu zen. 250 milioetatik, 167 Mintxetako obrak ordaintzeko izango dira, 50 Leku-Eder-eko parkea egiteko, 17 kanalizazioetarako, 3 milioi t'erdi Kiroldagirako eta gaintzekoa, bestelako gastuetarako izango da.

### ATLAS eta SAHARA (Maroko)

#### XAUEN BIDAIAK



\* **TALDE TXIKIAK:** Autokarabanz 17 per. / furgonetaz 8 per.

\* Joan etorria literan gabez.

\* **ATLASEKO EDURRETIK BASAMORTURA:**

Toub-Kal mendia (4.165 m.) + Erg Chebi (basamortua)

\* **TREKKING ATLASEAN:**

Bere-bereen herri txikietatik oinez beraien etxeetan bizitzaen.

\* **MENDIKO BIZIKLETAZ:**

Erg Chebi (basamortua) + M'goun bailara (Atlas)

\* **Bidean Asilah (kosta) Chechauen (rif) eta Marrakechen geldituko gara.**

\* **IRTEERAK** 93-12-26tik 94-1- 9ra .....75.000 pta.

94- 1-14tik 94-1-30era.....79.000 pta.

☎ (943) 12 71 60 informazioa eta erreserbak

## TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

INTERIORES

### BARRUIEN DEKORAZIORAKO ESTUDIOA

- Proiektuak eta erreformak
- Lokal komertzialak eta etxebizitzak
- Obren zuzendaritza eta gramioen koordinakuntza
- Neurritza egindako altzariak


Errosario 15. ELGOIBAR ☎ 74 40 19 / 55

L  
 E  
 H  
 I  
 A  
 K  
 E  
 T  
 A



Sebas Larrañaga izan da azaroko lehiaketako irabazlea. Lehiaketako erantzun zuzena Morkaiko Mendizale Elkartea da. Hemen dauzkagu ARTEGI dendan azaroaren 30ean egindako zozketan, Sebas eta bere alaba Ane *Samsung* mikrouhin labearekin eta ARTEGIko ordezkariarekin.

# ARTEGI



**Abenduko SARIA**

**SONY**

**TELEBISTA**

## ABENDUKO GALDERA:

Zein da gure aldizkarian gehien gustatzen zaizun atala?

- Komikia
- Lau hankatan
- Bertsoan
- .....

Erantzuna bidaltzeko azken eguna abenduaren 19a izango da. Zozketa abenduaren 20an egingo da ARTEGI dendan. Galdera astero errepikatuko dugu.

IZEN ABIZENAK.....

HELBIDEA.....TFNOA.....

**BIDALI ERANTZUNAK: elgoiBARREN. Nafarroa enparantza 2 . Elgoibar.**

# Kazetari bat Afrika aldean erreportari

Gaztea izanik ere, Aitor Zabaletak badu esperientziarik kazetaritzaren munduan. Kazetari ikasketak bukatu baino lehen ETBn izan zen lanean beka bati esker eta hainbat alditan etxe horretara bueltatu da epe laburreko kontratuekin. Gaur egun, Gernikako "Ikusbideo" produktorekin ari

da eta, hain zuzen ere, produktora honetarako hiru erreportaria egin ditu Ruandan. Hiru kazetari, bera barne, kamara bat eta honen laguntzailea bi astez izan ziren Afrikako herrialde izkutu horretan ETBko "Egun bete" programak emitituko dituen erreportariak grabatzen.

**- Nola sortu zen Ruandara joateko aukera?**


- Justu BARREnerako elkarrizketa batekin. Elgoibarko parroko izan zenari elkarrizketa bat egin nion, Pedro Albizuri, eta berak esan zidan nola 10 urte egon zan misionero Ruandan. Orduan kontatu zidan nola bere hiru lagun zeuden han, euskaldunak, eta erreportaria majuak zeudela esan zidan. Nik "Ikusbideo"ko jefiari komentatu nion eta mugitzen hasi ginen. Misionero haietako bat uda pasatzen zuan hemen eta bisita bat egin genion...

**- Zertaz dira erreportariak?**

- Hiru ekarri ditugu. Bata Ruandako egoerari buruzkoa da, orokorra. Beste bat misioneroekin egin dugu eta hirugarrena "Medicus Mundi"ko sendagile batekin, Bilboko bera.

**- Ruandako zein tokitan egon zarete konkretuki?**

- Gu misioneroen etxean egon gara, hiriburutik 15 kilometrotara dagoen Gihara herrian. Han geneukan kuartel generala, baina ia Ruanda guztian ibili gara. Oso txikia da eta distantziak oso motzak



**"Eurek errege bat bezala ikusten zaitzue . Zu europarra, diruduna,... zara."**

dira. Hiru ordutan ia dena errekorritu dezakezu. Euskal Herriaren antzekua da, 26.000 km2 ditu.

**- Nolakoak esango zenuke direla Ruanda eta ruandatarrak?**

- Ruanda oso herri politxa da, tropiko aldeko nazio tipiko bat, kriston begetazioarekin. Hiru parke natural dauzka, laku pilo bat... paisaia oso politxa da, oso menditsua. "Mila mendisken herrialdea" deitzen diote.

Politxa baina oso oso

pobria da eta arazo asko ditu: arazo politikoak, gerra... Gerrak hiru urte iraun ditu eta kalte asko ein dau. Tentsio handia dago, politikoki nahiz sozialki. Eta hori gutxi balitz, orain lehortea dago eta uztak arriskuan daude. Egoera ez da batere erraza beraientzat.

**- Jendearekin izan duzuen harremana nolakoa izan da?**

- Nahiko itxiak dira, serioak. Gure antzekoak. Euskaldunongatik ere esa-

ten da hasieran piska bat distanteak garela baina gero, lagun eginez gero, lagun ona daukazu.

Guk bentaja bat euki gendun. Ia beti hemengo jendiakin egon gara, han bizi diren misionero euskaldunekin. Hauek oso ondo ezagutzen dute herria eta baita bertako hizkuntza ere, horrek ate asko ireki dizkigu. Bestalde, Espainiako kontsulak ere asko lagundu digu, "Medicus Mundi"ko sendagileak ere bai.

**- Izan al duzue arazorik zuriak izateagatik?**

- Ez. Baina eurek errege bat bezala ikusten zaitxute. Zu europarra, diruduna... zara. Neri pena handia ematen zidan baina zure alboan egoteagatik edo eskua emateagatik, poztu egiten ziren.

**- Noiz ikusiko ditugu egin dituzun erreportariak?**

- Bi bota dituzte dagoeneko. Lehenengo egoera orokorra isladatzen zuena bota zuten, gero misioneroena eta Gabon inguruan emitituko da "Medicus Mundi"ko sendagile horrekin egindako erreportaria.

**Edu Sanz**



**Pepi Etxaniz**

*Eroskikoa*



- **Noiz hasi zinen Eroskin lanean?**  
- Oin dala 23 urte.
- **Non nahiago, San Frantziskon ala Santa Anan?** - San Frantziskon urte asko pasatu ditut baina lana eitxeko hau toki hobia da.
- **Krisiaren eragina antzeman al duzue salmentetan?** - Bai igartzen da. Nahiz eta urte batetik bestera inkrementua egon; erosketak beste era batekoak dira.
- **Zer iritzi daukazu denden ordutegien erregulazioari buruz?**  
- Kapitalian zerbitzu ona izango da era askotako jendia dago eta. Baina herri txikixetan ondiokan ez dala bihar uste dot.
- **Jendea hasi al da Gabon usainean erosketa bereziak egiten?**  
- Bai, azaroaren 25ean jarri genun prekanpainia eta gainera jendia zain zauan.
- **Elgoibarko familia gehienetan nork egiten dituela errekauek uste duzu?** - Ondiokan andrazkuak dominatzen badegu ere, aspaldi honetan gizonezko asko etortzen da, bai elkarrekin edo bakarrik ere.
- **Lan egiten duen emakumeari erraztasunak eman beharko litzaizkiokeela uste al duzu?** - Bai, ordutegi batera lotuta dauanez laguntza bihar deu beste aldia ere ondo eruteko.
- **Zer da asteburuetan egitea gustatzen zaizuna?** - Mendira jutia; basarrira edo mendira.
- **Zer aldatuko zenuke Elgoibarren aukera izanez gero?** - Sasoi batetik gauza gehixao ari dira eitxen eta aldatzen ari da. Nik uste dot bide onetik guazela eta segi ein bihar jakola.
- **Zein da gehien gustatzen zaizun txokoa?** - Neure ballaria.
- **Munduko zein leku ikusiko zenuke gustora?** - Arjentina. Beti esaten dot ez neukela hil nahi haraixe buelta bat ein gabe.
- **Zein bertsolari uste duzu izango dela txapeldun?**  
- Neuretzako Egaña onena.

Belen Arrizabalaga

**BERTSOTAN**

**MAKINA ERREMINTA**

**Doinua:** Aita izena kanta beharra

Txiki nintzela esan zidaten Elgoibarren zerbait bada Espainiako hiriburua makinak egiten gara tornuak egin ditugu hemen makinatxo bat ilara alemanekin, japoniarrekin gaur gu gintezke konpara baina oraingoz ezingo dugu luzaro hartu patxada.

Herrialde hau beti izan da lantegiz txit oparoa baina jadanik heldua zaigu krisialdiko aroa. Mundu guztia behea jota ekonomia eroa, etengabeko langabeziak galerazten digu loa momentuz behintzat ez da baikorra elgoibartarron geroa.

**Boti**

*Aranburu*



*Bitxidenda*

San Frantzisko 26. ☎ 74 25 35

**Gabonetako eskaintza berezia**

**Urrezko bi erloju zozketatuko ditugu!**

Zatoz eta 1.000 pezetako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara. Zozketa 1994ko urtarrilaren 5an izango da dendan.


*Zure zai gaude!*

## Ego-Tokiko 8 korrikalari Frantziara joango dira astebukaeran

Ego-Tokiko zortzi korrikalarik datorren igandean, hilak 5, Frantziako Arcachon herrian jokatu den "Gujan Mestras" lasterketan hartuko dute parte. Lasterketak nazioarte mailakoak dira eta Ego-Tokikoek korrikalari onenekin lehiatu beharko dute. Alberto Revueltak, Javi eta Luis Santamaria anaiek eta Roberto Garciak 10.100 metrotako luzeran parte hartuko dute, azken honek lehen aldiz korrituko duelarik. Lehen aldiz korrituko dute Imanol Santosek eta Jorge Gonzalezek ere; hauek 5.800 metrotako luzeran. Nesken atalean, Carmen Perea, Isabel Ruiz eta Argiñe Gabilondo 4.700 metrota-ko lasterketan arituko dira.

## Kuadrilen arteko III. Gabonetako txapelketa

Udaleko Kirol Zerbitzua Kuadrilen arteko Gabonetako Txapelketa antolatzen ari da. Izena emateko epea abenduaren 17an bukatuko dela jakinarazten zaie txapelketan parte hartu nahi duten kuadrilei. Izena ematea Kultur Etxean eta Mintxetean egin daiteke. Aurten egin beharreko kirol iharduerak bost izango dira, iaz baino bat gutxiago, alegia: futbol sala, saskibaloia, pala, krosa eta kro-noeskalada. Iazko tenisa eta igeriketaren ordez txirrindularitza egongo da. Iaz 22 kuadrilak hartu zuten parte eta txapelketa abenduaren 27tik 31ra bitartean izango da.



Mikel Fidalgo:

## "Ikuslego handia izan du Xake Txapelketak"

- **Nola ari da burutzen Nazioarteko Xake Txapelketa?** - Ondo. Beharbada txapelketa honek duen arriskurik handiena herriaren iharduera normaletik at gelditzea da. Arazoa jendearekin konektatzea izaten da.

- **Zer nolako harrera izan du txapelketak herrian?** - Uste baino jende gehiago ari da joaten partidak ikustera. Badirudi xakeak ez duela jenderik erakartzen, baina ez da horrela. Arazoa da denbora gutxi izaten dugula antolatzeke eta partidak lanorduetan jokatzeko direla. Antolatzaileok ere ezin izaten dugu bertan egon jendea azalpenak ematen eta txapelketaren publizitatea egiten. Bestetik, Federazioak txapelketa hau euskal jokalarientzat promozibide izatea nahi du eta guk, gure aldetik, jokalaria ezagunak ikusiaz haurrengan zaletasuna sortu nahi dugu.

- **Zer inpresio jaso dute txapelketaz jokalariek?** - Txapelketa oso gustuko zaie. Txapelketa itxia da, tentsio handirik ez dute izaten bi talde ondo ezberdinak baitaude: batetik, atzerritarrak eta bestetik, maila hobetu nahi duten euskaldunak.

- **Anekdotarik?** - Jendeak uste du xakean dabiltzanak burutik daudela baina oso norma-



lak dira. Anekdotak Ubilaba georgiarak kontatzen duena: Hona datorenean alkateak zerbitzatzen diola bazkaria. Ekialdeko europarren pentsakera estalitarako zure ondoan agintari bat afaltzen egotea oso inportantea da.

- **Antolakuntza aldetik zein izan da oztopo nagusia?** - Antolakuntza aldetik ez dugu arazorik izan. Arazo txikiak, ordea, baditugu; esaterako, ikustera joaten den jendea isilik ez egotea.

- **Nola ikusten duzu Elgoibar-ko txapelketaren etorkizuna?**

- Kategoriaz ezingo da igo euskal jokalarien maila igotzen ez bada. Txapelketak 8ko maila dauka eta jokalarien maila aldatu ezean, helburua horretan mantentzea da.

● **Adina:** 33.

● **Zuriak ala beltzak?** Zuriak.

● **Xakea ala damak?** Depende.

● **Piezarik gustokoena?**

Erregina.

**KANDALO**  
OIHALA  
eta  
MERZERIA  
Errosario 8. Tel:74 35 95

**Orbea**  
Kafetegia  
San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

**TIRO RIRO**  
  
San Frantzisko, 54. 74 13 86

**AITZBIZKAR ARDOAK**  
ARDO ETA PATTARRA  
PATATA SALMENTA  
Etixerainoko banaketa  
Errosario 18  
74 02 37

# Gilberto Milos eta Felix Izetaren artetik aterako da xake txapelketako irabazlea

## Nazioarteko

Xake Txapelketa bukatze-ar dago eta irabazlea Gilberto Milos brasildarra eta Felix Izeta euskaldunaren artetik aterako da seguru- en. Guztira 10 jokalarik hartu dute parte eta jokalarien arteko lehia oso gogorra izan da. Nazioarteko Xake txapelketaren eta eskolarteko xake txapelketaren sari banaketa gaur, hilak 3 egingo da, gaueko 9etan Kultur Etxean. Joan den igandean, azaroak 28,

jokalari handiek baino maisutasun gutxiagorekin baina gogo handiarekin jokatu zen eskolarteko xake txapelketa. Guztira, 25 hurrek hartu zuten parte. OHOk 5. eta 6. mailako irabazlea Maite Uriarte izan da. Bigarrena Ainhoa Uriarte gelditu da eta hirugarrena, David Campana. 7. eta 8. mailan Ivan Suarez gelditu da lehena, Unai Villena bigarrena eta Oier Uriarte hirugarrena.



Xake ikastaroak arraskata handia izan du.



Lehia handia egon da xake jokalarien artean.

Aste honetan zehar, goizez eta arratsaldez, Anatoly Bythkovsky Espainiako ipar aldeko 20 haurri xake ikastaroa ematen aritu da. Errusiarrak, munduko xake irakaslerik onena dugu. Goizez, xake txapelketan jokatzeko dabilen Ubilaba georgiarra eta Suba errumaniarra itzultzaile lanetan ibili dira. Ikastaroan 9 urtetik 17 urte bitarteko hurrek hartu

dute parte eta tartean, Espainiako txapelduna den J. Baron eta Euskadiko txapelduna ere izan dira. Kirol Zerbitzuak ikastaroaz aparte, tenis klaseak, patinak eta futbol partiduak antolatu ditu haurrentzat. Haurrak Mintxetan egon dira lotan eta bazkariak, berriz, IMHn egia dituzte. Kirol Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie IMHkoei, emandako laguntzagatik.

## EMAITZAK

### Futbola

Elgoibar 1 - Zarautz 3 (Infantilak)  
Elgoibar 15 - Irundarrak 0 (Jubenilak)  
Elgoibar 6 - Gazteak 1 (2 errejionala)  
Amorebieta 2 - Haundi 1  
Elgoibar 2 - Gure Txokoa 5 (Neskak)  
Hamaika bat 1 - Elgoibar 0c (Kadeteak)

### Eskubaloia

Elgoibar K.E.E.T. 25 - Bizkor Fiansa 17 (Kadeteak)  
Elgoibar K.E.E.T. 39 - Jauja (Mutiku) 9 (Jubenilak)

### Areto futbola

Sidreria Araeta - Elgoibar A.F.2 (1. maila)  
Bar Rodriguez 9 - Elgoibar A.F. 4 (2. maila)

## DATOZEN PARTIDUAK

### Futbola Mintxetan

**LARUNBATA 4**  
10,00: Urki - Eibar (Jubenilak)  
12,00: Elgoibar K.E. - Mutriku (kadeteak)  
16,30: Haundi - Gernika  
18,15: Urki - Zestoa (2. errejionala)

### IGANDEA 5

12,00: S.D. Eibar- Dunboa (Jubenilak)  
**ASTEAZKENA 8**  
12,00: Elgoibar K.E.- Antoniano (Neskak)  
16,30: Haundi - Mungia

### Areto futbola Kiroldegian OSTIRALA 3

22,00: Elgoibar F.S. - T. Txapeldun (2. maila)  
23,00: Elgoibar F.S. - Moulinex (1. maila)

### Eskubaloia Kiroldegian LARUNBATA 4

17,30: Elgoibar K.E.E.T. - Urnirta K.E.(Neskak)

# Lurki: buztina tornoa eta eskuarekin landuz

**Duela 15-16 urte sortu zen Lurki zeramika lantegia. Joakin Oriak eta lagun batzuek zeramika lantegia muntatu zuten Plaza txikiko lokaletan. Gaur egun, zazpi bazkide dira eta arduradun eta irakasle lanak, Jose Juaristik egiten ditu.**

**Lurki** zeramika lantegia buztina lantzeko aparailu eta tresnaz josita dago. Buztinaren arrastoa ere nagusi da denean. Jose Juaristik, lantegiko arduradunak, bost buztin mota lantzen dituen arren, jendeak normalean hiru lantzen ditu: gorria, beltza eta zuria. Objektuak egiteko gorria erabiltzen da eta beltza eta zuria, margotzeko erabiltzen dira. Buztin errefraktarioa eta gres izenekoa Josek bakarrik erabiltzen ditu.

Buztina lantzeko bi teknika dago: eskuz egin edo tornoa. Haseran eskuz egiten dituzte objektuak, "txurroen" bidez edo plaken bidez. Behin eskuzko teknikak menperatu eta gero, tornoa lantzeari ekiten zaio. Bi teknikak ere, eskuzkoa eta tornokoa, konbina daitezke. Tornoaren teknikaren lan prozesuaren lehen pausua, buztina lantzea izan ohi da. Buztinak daukan hezetasuna eta airea atera egin behar zaio eta horretarako eskuz landu behar izaten da.

Izan ere, hauxe da pausurik zailena. Buztina ez bada torroan ondo erdiratzen, objektua behin eta berriro eroriko da. Buztin zati batetik, hatzamar

puntekin objektu polit eta fin bat egiteko, indarra, pultsua eta pazientzia izugarria behar dira.

Objetua pare bat egunez sikatzen laga ondoren, tornotik pasatzen da berriro, eta gaineko forma guztiak findu egiten dira tresna batzuen bidez. Ondoren, laban egosten da. Gero, esmaltea ematen zaio eta berriro laban sartzen da esmaltea egin dadin.

Zeramikaren teknikak hedatu nahian, hiru ikastaro antolatzen dira urtean zehar. Ikastaro guztiak Josek ematen ditu. Lehenengoa, hastapen ikastaroa izan ohi da, gero, tornoari buruzko eta azkena, umeei zuzendutako ikastaroa. Umeen ikastaroa bukatu berri dute eta hurrena, ez



Buztinezko objektu bat egiteko pazientzia izugarria behar da.

da datorren urtera arte hasiko. Ikastaro hauek harrera ona izan dutela esan digu Josek. Adin guztietako jendea, gazteak zein nagusiak, urreratzen dira Lurkiren lokaleraino ikastaroez galdezka. Ikasle kopuruari dagokionez, muga jarri behar izaten da. Normalki, zazpi torno badaude, sei edo zazpi pertsonako taldea osatzen da iaz bederatzi izan ziren arren. Haurren ikastaroan, berriz, hamaika haur egon dira.

San Anton eguneko artisauntza erakusketan urtero hartzen dute parte, eta urtean zehar egindako lanak, Kultur Etxean edo beste herriren batean erakusten dituzte. Kultur Etxean Jose Juaristik eta Trini Cruz-ek egin zuten Lurkiren azken

erakusketa.

Gaur egun, zeramika lantzen duen lantegi bakarra da Lurki, baina garai batean ba omen zeuden Elgoibarren hiru zeramika lantegi. Bik teilak egiten zituzten eta batek, adreiluak. Dena den, Josek ez du bide tradizioaletik jarraitzeko asmorik eta esan digunez, nahiago du ikerketaren bidetik, forma eta kolore berriak esperimenta-

## FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1978

**Bazkide kopurua:** 7

**Arduraduna:**

Jose Juaristi

**Iharduera:** Zeramika

**Helbidea:**

Agirre Plaza, behea



**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

# Elche-ko komikigile bat izan da Elgoibarko komiki lehiaketaren irabazlea

Elgoibarko Kokoe komiki elkarteak komiki lehiaketan saritutakoen izenak ezagutzera eman ditu. Lehen saria Elchera joan da, bigarrena bizkaitar batentzat izan da eta herriko onenak eta 18 urtetik beherako onenak ere, aipamen berezia izan dute. Lehiaketan parte hartu duten lan guztiak erakusgai egongo dira Kultur Etxean abenduaren 19ra arte.

## Elgoibarko

Kokoe komiki elkarteak antolatutako III. Komiki Lehiaketaren irabazlea Elche (Alicante) herriko Juan Francisco Del Peral komilaria izan da. Komikigile honek "Sublime Decision" izeneko lanagatik 90.000 pezeta jasoko ditu. Irabazlea aukeratzekoan dudarik ez dutela izan esan digute Kokoekoek. Bigarren sariari dagozkion 60.000 pezetak Arteagako F.J. Etayo marrazkilariak jasoko ditu, "La ley" izeneko lanari esker. Herri-

ko lanik onena, Aitor Lodosok marraztutako "Eskola egunak" komikia izan da eta 18 urtetik beherako onena, Aitor Larrañaga zarautzarrak egindako "Utopia Teorikoa. Azken biek 25.000 pezetako saria jasoko dute. Epaimahaiko kide Iñaki Calvo Radio Euskadiko Microcomic saioaren egilea, Amaia Martiartu Napartheid-eko kidea, Iban Barrenetxea eta Mikel Cornejo Kokoeko kideak izan dira. Sari banaketa abenduaren 19an egingo da Kultur



↳ "Sublime decisión" izeneko lanak irabazi du lehen saria.

Etxeko erakusketa gelan, eguerdiko 12,30etan.

Lehiaketan Estatu osoko 58 komikigilek hartu dute parte, lanen maila duela bi urteko lehiaketan izandakoa baino askoz altuagoa izan delarik. Kokoekoek esan digutenez, Leon, Alicante, Madrid, Bartzelona eta hainbat herritatik jaso dituzte lanak.

Lehiaketan parte hartu duten lan guztiakin erakusketa egingo da Kultur Etxean. Lanak dagoeneko ikusgai daude eta lanak ikusteko azken eguna abenduaren 19a izango da. Erakusketaren ordutegia 7etatik 9etara bitartekoa izango da astegunetan, eta eguerdiko 12,30etatik 2etara bitartekoa jaiegunetan.

**HISPANIA**  **ZURICH**

**C. Romera**

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

 **Arrillaga, s.l.**

**INPRIMATEGIA**

DISEINUA -FOTOKONPOSIZIOA- ETIKETAK, CARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK- TIPOGRAFIA- OFFSET

Trenbide, 13 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 01 87 Fax: 74 27 40

**GURBIL** *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

 **OIERKI IGONGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

### 3 Ostirala

19,30 KOMIKI ERAKUSKETA

Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: Kokoe

21,00 XAKE TXAPELKETAREN  
SARI BANAKETA

Eskolarteko xake txapelketaren sari banaketa ere egingo da.  
Tokia: Kultur Etxea

22,15 ZINEA

"Acosada" Phillip Noyce.  
Aktoreak: Sharon Stone, W. Baldwin eta Tom Berenger.  
Tokia: Udaletxeko Biltzar Aretoa.  
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba

### 4 Larunbata

09,00 AISIALDIKO EKINTZAK

Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: Euskara Batzordea  
OHOkoko haurrentzat.

22,15 ZINEA

"Acosada"

### 5 Igandea

17,00-19,30-22,15 ZINEA

"Acosada"  
Haurrentzako sarrera: 150 pta.

### 6 Astelehena

17,00-19,30-22,15 ZINEA

"Un dia de furia"  
Zuzendaria: Joel Schumacher  
Aktoreak: Michael Douglas,  
Robert Duvall, T. Weld.  
Tokia: Udaletxeko Biltzar Aretoa  
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba  
Haurrentzako sarrera: 150 pta.

### 7 Asteartea

19,30-22,15 ZINEA

"Un dia de furia"

### 8 Asteazkena

17,00-19,30-22,15 ZINEA

"Un dia de furia"  
Haurrentzako sarrera: 150 pta.

## Z I N E A

### "Acosada"

Ira Levin idazlearen nobelan oinarritutako misterio psikosexuala da. Carly Norris, (Sharon Stone) ezkontza apurto eta gero Manhattan-era joango da bizitzera "sliver" izeneko eraikuntza batera. Edifizioaren inguruan istripu eta gertakari misterioitsu ugari daude. Bi bizilagunek neskarekin harremana hasiko dute.

### "Un dia de furia"

Kontakizun "beltza". Horrorezko filma batetik, eta akziozko melodrama eta hiriko thriller-a bestetik. Tramak gai serio ugari ikutzen ditu: Amets amerikararen heriotza, Los Angeles-eko hiri eroa, WASP batek sortarazten duen errespetu kaxkarra, gizatasunaren zentzuaren galera, izpiritu komunitarioaren aurrean indiferentzia... Hitz baten: ez deskuidatu Los Angeles-en autotik jeisten.

## Z I N E A

# EIBAR

OSASUNDEGIA

- |                           |                          |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia            | 9- Ortodontzia           |
| 2- Kardiologia            | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia                | 11- Pediatria            |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria            |
| 5- Dermatologia           | 13- Radiologia           |
| 6- Ginekologia            | 14- Traumatologia        |
| 7- Laborategia            | 15- Urologia             |
| 8- Barne medizina         |                          |

Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

JOSE ANGEL ZABALA

**URDAITEGIA**

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34



TABERNA

## Etxebizitzak

Errosario kalean etxebizitza bat alokatzeko daukat.  
Tel. 74 17 95

Etxe bat saltzen dut Urasandin.  
1. pisua. Tel: 75 51 69

## Lana

Aizu etxeokandrea!, perfumeria apainketa eta kosmetikan ari den frantziar multinazional batek emakumezkoak behar ditu. Salmenta zuzena. Diru etorri oso ona. Muestrario bikaina publikitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat.  
**Deitu arratsaldeko 7retatik aurrera 51 04 53 zenbakira.**

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut.  
74 23 30 Elena

## Salerosketak

Garaje bat saltzen da. Bi kotxerentzat espazioa eta leku onean. Modu onian.  
**74 23 44 eguerdiko 12ak baino lehen.**

Bigarren eskuko Renault 12 Bi- 1988 Y salgai.  
Prezio egokia.  
**Tel.: 74 41 32 Fernando**

OPEL CORSA GT 3 ate SS-AH saltzen da.**Tel.: 74 01 17**

Brother trikotosa bat saltzen dut. bigarren eskukoa.  
Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.  
**Tel: 74 18 51**

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Altilloa" du. Almazenerako aproposa. **74 34 65**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak.  
**74 04 59**

## kontaktuak

Hi, gazte!! Traban dauzkaken diska, zin eta konapaktoak, zarrak, berrixak, oingak aeta lenguak jasotzen ditugu. Deitu arratsalde ZAZPIKIRA 74 34 74 edo bialdu 70 postakutxatilara. Mila esker.

Karitasek familia bati emateko butano txikidun estufa bat behar du. Inork emateko bezala balu, deitu.  
**74 15 09 / 74 12 57**

Karitasek erropak gordetzeko armario bat hartuko luke familia bati emateko.  
**74 15 09 / 74 12 57**

Untzon taberna istera doanez, bertan dagoen tresneria salgai jarriko dugu. Kamarak, Kafetera, Ontziak, kazuelak... Informazio gahiago nahi duenak dei dezala **74 00 35** Jesusa.

## AZAROAN

### Ezkondutakoak

- ▶ J. Andres Gabilondo Mugerza eta M. Jesus Intxausti Larrañaga(Azaroak 19)
- ▶ Jorge Juan de la Arada Lopez eta Nerea Kortazar Arizaga (Azaroak 20)

### Hildakoak

- ▶ Antonio Segundo Navarro(Azaroak 1)
- ▶ Julian Valentin Plaza (Azaroak 16) 85 urte
- ▶ Elias Unzueta Unzueta (Azaroak 7) 84 urte
- ▶ Jose Domingo Gandiaga Urkidi (Azaroak 13) 70 urte
- ▶ Juan Ruiz Fernandez (Azaroak 26) 32 urte
- ▶ Eugenia Ferreira Francisco (Azaroak 27) 85 urte

### Jaiotakoak

- ▶ Zuriñe Insausti Garcia (Azaroak 8)
- ▶ Edurne Mendikute Millan (Azaroak 17)
- ▶ Amaia Conde Bermejo (Azaroak 20)



# KENSINGTON

**93-94 ikasturterako matrikulazio epea zabalik!**  
**Ingelesa eta frantzesaz gain,**  
**orain, eskaeren arabera ALEMANA ere bai.**

- ☛ Orain matrikulatzen direnak aurreko taldeetan sartzeko aukera izango dute.
- ☛ Urtarriletik aurrera **TALDE BERRIAK**, maila eta adin guztientzat.
- ☛ % 80ko asistentzia dutenek **KENSINGTON AGIRIA** jasoko dute.
- ☛ Enpresetan ere klaseak ematen ditugu



GIPUZKOAKO HIZKUNTZ IRAKASLE  
ELKARTEKO BAZKIDE

P. Muguruza 8. ELGOIBAR ☎ **74 02 36**

# Ariondo

## ALTZARIAK-DEKORAZIOA



*Etxean  
gustura egon  
zaituzen*

Santa Ana, 4-6  
Tel: 74 12 34  
ELGOIBAR